

HERNANIKO UDALETXEAREN BERRIZTATZEA

RENOVACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE HERNANI



UDALETXEA, DOTORE APAINDUTA, HERRITARREI ONGIETORRIA EMATEKO BESOAK ZABALIK



EL AYUNTAMIENTO, CON SU RECIÉN ESTRENADO ASPECTO, RECIBE A LAS Y LOS HERNANIARRAS CON LOS BRAZOS ABIERTOS

Hernaniko udaletxea duela 120 urte berreraiki zen. Udalbatzar aretoa eta areto nagusia berriki birgaitu dira, eta, itxurarekin batera, azpiegiturak egungo beharretara egokitu ere egin dira.

Herriko etxeko alderdi monumentalenek -udalbatzar aretoa, areto nagusia eta eskailera-erabateko itxuraldaketa izan dute. Apain, dotore, originala eta funtzionala, herniarrei gonbita egiten die gertura daitezen eta espazioei bizia eman diezaieten.

Los salones del ayuntamiento de Hernani, un edificio que se reconstruyó hace más de 120 años, se han renovado por completo. No sólo ha mejorado su aspecto, sino que se han adaptado a las necesidades actuales para convertirse en unos espacios funcionales.

Los elementos más monumentales -el salón de plenos, el salón de actos y la escalera- han experimentado un cambio radical. Ahora, elegante, distinguido y original, invita a la ciudadanía de Hernani a que se acerque y dote de vida a sus espacios.

ARETO NAGUSIA

XVIII eta XIX. mendeetan neoklasizismoa zabaldu zen Europa osoan zehar, mundu klasikoaren eta Errenazimenduaren ereduetara itzultzea proposatzen zuen estilo artistikoa. Estilo horretakoa da Joaquín Fernández de Ayarragaray arkitektoak diseinatutako aretoa, 120 urte baino gehiagoz bere jatorrizko diseinuari eutsi izan diona, eraberritze puntual batzuk salbu.

Berriki egindako esku-hartzeak aretoaren jatorrizko irudia (1899) errespetatu du uneoro. Pinturak teknika tradizionalekin zaharberritu dira: tempera-pintura aretoaren erdiko sabaietan, marmola imitatzeko teknika tradizionalak zutabe eta kasetoietan... Gaur egun eskailera nagusian ikus daitezkeen jatorrizko pinturen erreprodukzioa da guztia.

Aretoaren parametro zentraletan, paretetan, damasko-antzeko apaingarriz hornituriko jatorrizko paperaren hondarrak zeuden, 1899koak. Orain, jatorrizkoarekiko ahalik eta leialen jokatzeko ahalegin horretan, paper indartu bat jarri da, duela mende bat baino gehiago erabili zenaren antzekoa.

Azken batean, udaletxeko areto nagusiari bere jatorrizko itxura itzuli nahi izan zaio, irizpide historiko eta zaharberitzaleei errespetu handiz jarraituz, baina, hori bai, aurrerantzean hernaniarrontzat irekita egongo den erabilera anitzeko areto gisa izan ditzakeen erabileratarako egokitua.

SALÓN DE ACTOS

Durante los siglos XVIII-XIX se extiende por toda Europa el Neoclasicismo, un estilo artístico que proponía la vuelta a los ideales del mundo clásico y del Renacimiento. A este estilo responde el salón diseñado por el arquitecto Joaquín Fernández de Ayarragaray, salón que durante más de 120 años había mantenido, salvo puntuales reformas, su diseño original.



La reciente intervención ha respetado en todo momento la imagen que teníamos del salón en su estado original (1899). Se han rehabilitado las pinturas con las técnicas tradicionales: al temple en los techos centrales del salón, técnicas tradicionales de imitación a mármol en columnas y casetones... todo ello es una reproducción de las pinturas originales hoy visibles en las escaleras centrales.

En los parámetros centrales del salón, en sus paredes, había restos del papel original de 1899, con una decoración adamascada; en ese intento por ser lo más fiel posible al original, se ha colocado un papel entelado, asemejado al utilizado hace más de un siglo.


En definitiva, se ha pretendido devolver al salón de actos de la casa consistorial su aspecto original, siguiendo un criterio histórico y restaurativo muy respetuoso, aunque, eso sí, adecuándolo para los posibles usos que en adelante pueda acoger como un salón polivalente abierto a la población hernaniarra.

OSOKO BILKUREN ARETOA

Osoko bilkuren aretoa berritu zenean, 2018an, irizpide historiko eta zaharberritzaleak jarraitu ziren, eta indar bisual handiko horma-lan bat egin zen. Haren bidez espazio honen jatorrizko elementu interesgarriei balioa eman nahi izan zitzaien. Eta, era berean, hernaniarrok gure ingurunearekin, izaerarekin eta bizi-filosofiarekin identifikatuta senti gitezela zen asmoa. Gainerako zaharberritzeta eta eraberritze jarduketen burutze-lana eta, aldi berean, kontrapuntua da, erabat uztarturik baitaude haien artelanarekin.

SALÓN DE PLENO

En su recuperación, finalizada en 2018, se siguieron criterios históricos y restaurativos, y se realizó una obra mural, que dotó al salón de gran fuerza visual. Con ella se pretendía poner en valor los elementos originales de interés de este espacio. Asimismo, la intención era lograr que las y los hernaniarras nos sintiéramos identificados con nuestro entorno, con nuestro carácter y filosofía de vida. Es el colofón y, a la vez, el contrapunto, al resto de la actuación de rehabilitación y reforma, ya que ambas están completamente vinculadas a la obra de arte.



ZENBAIT DATU HISTORIKO INTERESGARRI



ALGUNOS DATOS HISTÓRICOS DE INTERÉS

Hernaniko udaletxea 1875ean suntsitu zuten II. Karlistadaren (1872 - 1876) testuinguruan. Joaquín Fernández de Ayarragaray herriko seme eta arkitektoaren zuzendaritzapean berreraiki zen; obra 1899an amaitu zen.

Estilo neoklasikoko birgaitze horretan zenbait elementu nabarmentzen dira: fatxada monumentala eta barne-espazioak, hala nola, eskailera nagusia eta aretoak. Espazio horiek arreta handiz diseinatu eta apaingarri ugariez jantzi zituen.

La casa consistorial de Hernani fue destruida en 1875, en el contexto de la II Guerra Carlista (1872-1876). Joaquín Fernández de Ayarragaray, hijo de la villa y arquitecto, tomó las riendas de la reconstrucción, que finalizó en 1899.

En su actuación, de estilo neoclásico, destacan su monumental fachada y espacios interiores como la escalera principal y sus salones. Todos ellos fueron diseñados al detalle, lo que se refleja en la gran proliferación de elementos ornamentales y decorativos.



Gudarien plaza, 1
20120, Hernani
www.hernani.eus
943 337 000



Arkitektoa: Xabier Barrutia Basurko
Esku-hartze artistikoa: Victor Goikoetxea Agirre
Argazkiak: Hernaniko Udal Artxiboa

